



Irakurketa
errazean

Gizarte Zerbitzuen Zorroa

Gobierno
de Navarra  Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Kredituak

Gizarte Zerbitzuen Zorroa.
Irakurketa errazeko bertsioa.

© Nafarroako Gobernua, 2023.

Irakurketa errazera egokitutako testua,
eta Inclusion Europearen ereduaren arabera
eta UNE 153101 EX arauaren arabera baliozkotutakoa.

Irakurketa errazera egokitzea: Calícrates.

Testuak baliozkotzea: Gure Sustraiak Baserri Eskola.

Diseinua eta maketatzea: Oscar Larrañeta.

Argazkiak: Arizcuren y Osés Fotografía.

Irakurketa errazeko Europako logotipoa azalean:

© Inclusion Europe.

Argibide gehiagotarako:

<https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

Aurkibidea

Aurkezpena	4
Udalen lehen mailako arreta	8
Mendekotasunaren arreta	12
Adinekoen arreta	16
Desgaitasuna duten pertsonen arreta	20
Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arreta	26
Gizarte-bazterketa egoeran dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsonen arreta	30
Adingabeen arretarako arloa	36
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko arloa	42
Intereseko helbideak	46

Aurkezpena

Zer da dokumentu hau?

Esku artean duzun dokumentu hau irakurketa errazerako egokitzapen bat da, Nafarroako Gobernuaren

Gizarte Zerbitzuen Zorroarena.

Gizarte Zerbitzuen Zorroa:
gobernu batek behar duten pertsonen eskaintzen dizkien zerbitzuen multzoa.

Gizarte Zerbitzuen Zorroa

Nafarroako Gobernuak ematen dituen laguntza guztiak dira.

Izan ere, bizitzan zehar pertsona batzuek laguntzak behar dituzte, egoera desberdinengatik, eta Gobernuak eman egiten dizkie.

Adibidez, desgaitasuna duten pertsonak, arriskuan dauden adingabeak, adinekoak eta beste batzuk.

Laguntza horiei prestazio esaten zaie.

Zenbait motatako prestazioak daude?

Bai, orokorki, prestazioak izan daitezke:

- **Bermatuak.**
- **Bermatu gabek.**

Prestazio bermatuak eskubidea dira, hau da, exijitu egin daitezke.

Bermatu gabeko prestazioak soil-soilik jaso ahal dira

Gobernuak horretarako **aurrekontua** duenean.

Aurrekontua:
Gobernuak duen dirua gastuei aurre egiteko.

Prestazio bakoitza eskatzeko, baldintza batzuk bete behar dira.
Beraz, betetzen badituzu, eskatu ahal duzu prestazioa.

Prestazioa eskatzeko,
formulario bat bete behar duzu.

Dokumentu honen amaieran, helbideak dituzu,
informazio gehiago eskatzeko.

Nolakoak dira prestazioak?

Prestazioak zerbitzuak izan daitezke
eta bai **laguntza ekonomikoak** ere.

Adibidez, zerbitzuak zenbait motatakoak izan ahal dira:

- **Aholkularitza:** pertsona bati ematen zaion sostengua, informazioa eta aholkuak emanda, bere interesekoa den zerbaiti buruzko erabaki bat hartzeko. Adibidez, Gizarte Zerbitzuek aholkuak ematen dituzte pertsona batek eskatu ahal dituen prestazioei buruz.
- **Etxeko laguntza:** pertsonen ematen zaien laguntza, etxe barnean edo kanpoan ezin dituztelako jarduera batzuk egin. Pertsona horiek etxean bizitzen jarraitu nahi dute, eta horretarako sostengua behar dute. Adibidez, laguntza behar dute bainatzeko edo erosteko.
- **Egoitzako arreta:** egoitzak dira, etxean bizi ezin diren pertsonentzat eta laguntza espezializatua behar dutenentzat. Denbora batez edo betiko bizi ahal dira egoitzan.

Laguntza ekonomikoak:
pertsona batek denbora batez jasotzen duen dirua.

- **Eguneko zentroa:** etxetik kanpo eta egunez, jarduerak egiteko eta zainketak hartzeko tokiak dira.
- **Gaueko zentroa:** gauez atsedean hartzeko eta zainketak hartzeko tokiak dira.
- **Prebentzioa:** gertatu baino lehen, arrisku bati aurrea hartzeko aukera ematen duen ekintza.

Adibidez, **mendekotasuna** prebenitzeko zerbitzua

Mendekotasuna:

egoera bat, non pertsona batek laguntza mota bat behar duen, adibidez, dirua edo beste pertsona baten laguntza.

mendekotasuna duen pertsona bat

ez okertzeko zerbitzua da.

Mendekotasuna duen pertsonak

jardueretan edo errehabilitazioan parte hartzen du, osasunez ongi egoteko.

- **Telelaguntza:** beren etxean bizi diren pertsonentzako zerbitzua. Pertsona horiek gailu berezi bat dute, adibidez, eskumuturreko bat, medailoi bat edo telefono bat, botoi bat duena laguntza eskatzeko. Laguntza behar duen pertsonak botoia sakatu behar du. Profesionalek bozgorailu batetik erantzun eta laguntza bidaliko diote. Noizean behin deitu ere egiten diote, nola dagoen jakiteko.

Laguntzaile pertsonala:

prestakuntza duen pertsona, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen laguntzen diena.

Laguntza ekonomikoak ere badaude, adibidez:

- Dirua, zure etxean profesional batek edo senitarteko batek zu zaintzeko.
- Dirua, **laguntzaile pertsonal** bat kontratatzeko, laguntzeko **bizitza independentea** izaten.
- Dirua, eguneko zentroa, gaueko zentroa edo egoitzako arreta ordaintzeko, plaza bat eman ezin zaizunean.

Bizitza

independentea:

egoera bat, non pertsona bere kasa bizi den. Kasu batzuetan, pertsona horrek sostengua edo laguntza behar du.

- Dirua, gizarte-ekimeneko entitateetarako, adibidez, desgaitasuna duten pertsonentzat antolatzen badituzte jarduerak.

Laguntza ekonomikoak izan daitezke:

- **Aldian behin ematen direnak,** adibidez, hileru.
- **Behin bakarrik ematen direnak,** ordainketa bakar batean.

Zerbitzu forma duten prestazio batzuek eta laguntza ekonomiko batzuek **koordainketa** dute.

Gizarte Zerbitzuen Zorroak hauetarako prestazio guztiak hartzen ditu barnean:

- **Udalen lehen mailako arreta.**
- **Mendekotasunaren arreta.**
- **Adinekoen arreta.**
- **Desgaitasuna duten pertsonen arreta.**
- **Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arreta.**
- **Gizarte-bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen arreta.**
- **Adingabeen arreta.**
- **Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren pertsonen arreta.**

Koordainketa:

ordainketa-sistema bat, non erabiltzaileak zerbitzu baten zati bat ordaintzen duen eta Gobernuak beste zati bat.

Udalen lehen mailako arreta

Arrotxapeko Auzo Unitatea, Iruñean



CEM
INILU DE BARRIO
OCHAPLA

AIZO-INTAKA
ARRITZAPLA

Udalen lehen mailako arreta

Edozein pertsonak eskatu ahal duen lehen informazioa edo laguntza da lehen mailako arreta.

Osasun-etxeetan, osasuneko eta gizarte-laneko profesionalek ematen dute lehen mailako arreta.

Gizarte Zerbitzuetan ere badago lehen mailako arreta.

Adibidez, Iruñean, **Auzo Unitateek** ematen dute

lehen mailako arreta.

Herrietan, udaletako Gizarte Zerbitzuen bulegoek ematen dute lehen mailako arreta.

Gizarte Zerbitzuek sarean egiten dute lan.

Pertsona bat lehen mailako arretara iristen denean, profesionalek bere egoera baloratzen dute, behar duen laguntza emateko edo laguntza eman ahal dioten bulegora **bideratzeko**, bere egoeraren arabera.

Auzo-unitateak:

Gizarte Zerbitzuen bulegoak, auzo jakin batean bizi diren pertsonen arreta emateko.

Bideratu:

pertsona bat beste bulego edo zerbitzu batera bidaltzea, han hobeki lagundu edo informatu ahal diotelako.

Egoera desberdinak artatzeko,
Gizarte Zerbitzuek prestazio bermatuak dauzkate
programa hauetan:

- Harrera eta orientabide soziala.
Pertsona ezagutzeko eta zer behar duen jakiteko.
- Mendekotasuna dutenei arreta ematea
eta haien **autonomia sustatzea**.
- Gizarteratzea,
gizarte-bazterketa egoeran
edo horretarako arriskuan dauden pertsonentzat.
Gizarte-bazterketa egoera bat da,
non pertsona batek zailtasunak dituen
gizartean parte hartzeko.
Diskriminazioarengatik, pobreziarengatik
eta beste arrazoi askorengatik gertatzen da.
- Haurrak eta familiak.
Gatazkak modu egokian konpontzen laguntzeko familiei,
neska-mutikoak babesteko
eta familia-bizitza ona edukitzeko.

Programa:
jardueren multzo
ordenatua.

Sustatzea:
pertsona, produktu,
zerbitzu, informazio...
bat bultzatzeko
ekintza, beste batzuen
artean.

Autonomia:
beren kasa jarduteko
pertsona batzuek
edo batek duten
gaitasuna, ezeren edo
inoren mende aritu
gabe.

Lehen mailako arretan,
bermatu gabeko prestazioak hauek dira:

- Etxeko arreta, beharrak dituzten pertsoneri,
baina mendekotasun-egoera aitortuta ez dutenei.

Mendekotasunaren arreta

Terapia okupazionalako jarduera, El Vergel egoitzan



Mendekotasunaren arreta

Eguneroko bizitzako oinarrizko gauzak egiteko sostengua edo laguntza behar dutenak dira mendekotasuna duten pertsonak.

Pertsonak mendekoak dira etengabeko laguntza behar dutelako, beren adinarengatik, gaixotasun batengatik edo desgaitasun batengatik, adibidez, beren burua garbitzeko, janzteko, jateko, etxeari ongi eusteko, mugitzeko, orientatzeko edo gauzak ulertzeko.

Mendekotasuneko 3 gradu daude:

- **1. gradua, mendekotasun moderatua:** pertsonak egunean behin behar du laguntza, eguneroko bizitzako oinarrizko gauzearako, edo sostengu mugatua behar du.
- **2. gradua, mendekotasun larria:** pertsonak egunean 2tan edo 3tan behar du laguntza, baina ez du beste pertsona baten etengabeko laguntza behar.
- **3. gradua, mendekotasun handia:** pertsonak egunean zenbaitetan behar du laguntza eta beste pertsona batek etengabe laguntzea behar du.

Pertsonen beren etxean bisita egiten dien erakundea

Balorazio Zentroa da,

mendekotasuna duten edo ez

eta zer gradutakoa den baloratzen duena.

Pertsona batek mendekotasun-gradua duenean,

informazioa ematen da edo behar dituen laguntzak eskatzen dira

Gizarte Zerbitzuetan edo osasun-etxeetan.

Mendekotasuna duten pertsona guztientzat **bermatuta** daude prestazio guztiak.

Hauek dira prestazioak:

- Aholkularitza, etxean oztopoak kentzeko.
Adibidez, bainuontzia kendu eta dutxa jartzea.
- Telelaguntza-zerbitzua.
- Autonomia pertsonala hobetzeko zerbitzuak,
Adibidez:
 - **Ezagutzaren estimulazioa.**
 - **Terapia okupazionala.**
- **Bizitza Independenteterako Bulegoa:**
Bulego bat,
non bizitza independenteari eta laguntza pertsonalari buruzko informazioa jaso daitekeen.
Bizitza Independenteterako Bulegoan,
prestakuntza ematen diete
laguntzaile pertsonalak izan nahi duten pertsoneri.
- Garraio egokituko zerbitzua.
- Eguneko eta gaueko arretarako zerbitzuak.
- Egoitzako arretarako zerbitzuak
eta egoitzetan aldi baterako egonaldiak.
- Dirua, profesional batek edo senitarteko batek zu zaintzeko.
- Laguntza ekonomikoa, mendekotasuna duten pertsonentzat,
egoitza batean bizi badira eta ez badute dirurik arropa erosteko,
garraioa ordaintzeko, aisiarako eta beste batzuetarako.

Ezagutzaren estimulazioa:
jarduerak, oroimena, arreta, kontzentrazioa eta beste gaitasun batzuk hobetzeko.

Terapia okupazionala:
lana, non profesional batek irakatsi eta lagundu egiten dien pertsoneri eguneroko bizitzako jarduerak egiten.

Adinekoen arreta

Telelaguntza-zerbitzua etxebizitza partikularrean



Adinekoen arreta

Nafarroan, adineko pertsonak dira 65 urte baino gehiago dituztenak.

Adineko pertsonen beharrei erantzuteko prestazio **bermatu** hauek daude:

- Familia-egoeraren balorazioa, egoitza batean plaza bat lortzeko. Adibidez, zainketak behar dituen pertsona bat, baina laguntza eman ahal dion pertsonarik ez duena.
- Aholkularitza, etxebizitza egokitzeko edo laguntza-produktuei buruzkoa. Adibidez, mugitzeko gurpil-aulki bat edo hobeki entzuteko audifonoak aukeratzeko laguntza.
- Telelaguntza-zerbitzua.
- Aldi baterako egonaldiak egoitzetan, arrazoi hauengatik:
 - Adineko pertsonak zainketa bereziak behar ditu, adibidez, ebakuntza egin diotelako.
 - Zaintzailea bajaran dago.
 - Zaintzailea oporretan dago.
- Aldi baterako egonaldiak zentro **psikogeriatrikoetan**, pertsonak narriadura kognitibo larria duelako eta arreta espezializatua behar duelako.
- Egonaldi iraunkorrak egoitzetan edo zentro psikogeriatrikoetan, pertsonak zainketak behar dituelako eta ez duelako lagundu ahal dion inor.
- Laguntza ekonomikoa, adineko pertsonentzat, egoitza batean bizi badira eta ez badute dirurik arropa erosteko, garraioa ordaintzeko, aisiarako eta beste batzuetarako.

Psikogeriatrikoa:
toki bat, non osasun mentalari eragiten dioten gaixotasunak dauzkaten adineko pertsonak tratatzen diren. Adibidez, alzheimerra duten pertsonak.

Adineko pertsonentzako **bermatu gabeko** prestazioak hauek dira:

- Arreta-zerbitzua eguneko zentro batean.
- Arreta-zerbitzua, gauez, egoitza batean edo zentro psikogeriatrico batean.
- Etxebizitza-zerbitzua sostenguekin.
- Aldi baterako egonaldiak egoitzetan eta egoitza-arreta, pertsona ez bada mendekoa edo mendekotasuna moderatua denean.
- Garraio egokituko zerbitzua.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzua.
- Laguntza ekonomikoa **jantokietarako** eta laguntza-produktuak erosteko.
- Dirulaguntzak, adineko pertsonekin aritzen diren gizarte-ekimeneko entitateetarako.

Jantokia:
otorduak
zerbitzatzeko
erabiltzen den lekua.

Desgaitasuna duten pertsonek arreta

Etxebizitza laguntzaduna, Barañainen



Desgaitasuna duten pertsonen arreta

Desgaitasuna duten pertsonak behar batzuk dauzkate beren eguneroko bizitzan, urritasun batengatik eta inguruan dituzten oztopoengatik. Gizarte Zerbitzuen helburua da oztoporik ez egotea desgaitasuna duten pertsonentzat.

Prestazio bermatu hauek daude, desgaitasuna duten pertsonen beharrak artatzeko:

- Desgaitasunaren balorazioa. Ebaluazioa, pertsonak zer sostengu behar duen zehazteko, eta bai zein diren kalte egin diezaioketen oztopoak ere.
- Familia-egoeraren balorazioa, egoitza batean plaza bat lortzeko.
- **Egokitasun** okupazionalaren edo lanekoaren balorazioa. Ebaluazioa, hauek zehazteko: desgaitasuna duen pertsona enpleguko zentro berezi batean has daitekeen, zentro okupazional batean edo lanerako laguntza behar duen.
- Aholkularitza etxebizitza egokitzeko edo laguntza-produktuei buruzkoa.

Egokitasuna:
zerbaitetarako egokia
edo aproposa den
pertsona baten
ezaugarria.

- **Arreta goiztiarreko** zerbitzua (0-3 urte).
- Familiako esku-hartze zerbitzua, bizi-kalitate ona edukitzen laguntzeko. Zerbitzu honek azaltzen du nola hobetu jarrerak, ezagutzak, ereduak eta trebetasunak, desgaitasuna duten pertsonak artatzeko.
- Telelaguntza-zerbitzua.
- Bizitza Independenteterako Bulegoa, prestakuntza emateko, sentsibilizatzeko eta sostengua emateko.
- Aldi baterako egonaldiak edo egonaldi iraunkorrak egoitzetan, familian gatazka bat dagoenean edo pertsona horrek ez daukanean nork zaindu.
- Laguntza ekonomikoa, desgaitasuna duten pertsonentzat, egoitza batean bizi badira eta ez badute dirurik arropa erosteko, garraioa ordaintzeko, aisiarako eta beste batzuetarako.
- **Etxebizitza laguntzadunak:** zerbitzu bat dira, eta desgaitasunaren graduaren eta motaren arabera ematen dira.
Etxebizitza laguntzadunak 3 motatakoak dira:
 - **Laguntza handia:** laguntza ematen duen pertsona desgaitasuna daukanarekin bizi da.
 - **Laguntza moderatua:** laguntza ematen duen pertsona ez da bizi desgaitasuna daukanarekin eta laguntza sarri ematen dio.
 - **Laguntza txikia:** laguntza ematen duen pertsona ez da bizi desgaitasuna daukanarekin eta laguntza noizean behin ematen dio.

Arreta goiztiarra: neska-mutikoentzat, haien familientzat eta ingurunearentzat diren esku-hartzeen multzoa, garapenean narriadurak dituzten edo edukitzeko aukera duten neska-mutikoen beharrei ahalik eta azkarrena erantzuteko.

Desgaitasuna duten pertsoneri

bermatu gabeko prestazio hauek ematen zaizkie:

- Eguneko arreta-zerbitzua, eguneko egonaldia edo aldi baterako egonaldia eguneko zentro batean.
- Gaueko egonaldi-zerbitzua.
- Etxebizitza-zerbitzua, laguntza moderatu edo txikiarekin.
- Egoitzako arreta-zerbitzua.
- Garraio egokituko zerbitzua.
- Zentro okupazionalako zerbitzua.
- Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko zerbitzua.
- Laguntza ekonomikoak:
 - Laguntzaile pertsonal bat kontratatzeko.
 - Hilerokoak, oinarrizko beharrei erantzuteko, zentro okupazional batera joaten diren pertsonentzat, desgaitasunaren graduaren eta motaren arabera.
 - Garraiobide kolektiboak egokitzeko, adibidez, taxiak.
 - Dirulaguntzak desgaitasuna duten pertsonen entitateei.
 - Prestazio ekonomikoa, laguntza-zerbitzu pertsonaletarako eta ostatatze berezietarako.



Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonek arreta

Taldeko saioa, Arga Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroan



Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen arreta

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonek beren gogo-aldarteari, pentsamenduei, emozioei edo jokaerari eragiten dioten, egoerak edukitzen dituzte.

Egokitasuna:

zerbaitetarako egokia edo aproposa den pertsona baten ezaugarria.

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko prestazio **bermatu** hauek daude:

- **Egokitasun** okupazionalaren edo lanekoaren balorazioa.
- Esku-hartze **soziokomunitario** zerbitzua, pertsona horiei eta beren inguruneari laguntzeko.
- Telelaguntza-zerbitzua.
- Garraio egokituko zerbitzua, errehabilitazio psikosozialeko zentro batera joateko.
- Errehabilitazio psikosozialeko zerbitzua, arreta terapeutikoa, errehabilitazioa eta sostengua emateko.
- Eguneko arreta errehabilitazio-zentroetan, oinarrizko behar pertsonalak artatzeko.
- Etxebizitzak, laguntza handiekin eta moderatuekin.
- Gaueko egonaldiak, aldi baterako egonaldiak eta egonaldi iraunkorrek egoitzetan.
- Egoitzako arreta-zerbitzua.
- Laguntza ekonomikoak garraiorako edo aisialdirako.
- Laguntza ekonomikoak gizarteratzeko eta familian txertatzeko, gaixotasun mental larria duten pertsonentzat, gizarte-bazterketa egoeran edo horretarako arriskuan badaude.

Soziokomunitarioa:

pertsonen komunitateen arteko harreman sozialei dagokiena.

Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako **bermatu gabeko** prestazio hauek daude:

- Etxebizitza-zerbitzua, laguntza txikia behar duena.
- Garraio egokituko zerbitzua, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programetara joateko.
- Zentro okupazionalako zerbitzua.

Gizarte- bazterketa egoeran dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsoneen arreta

Alaiz egoitza Biurunen



Gizarte-bazterketa egoeran dauden edo horretarako arriskuan dauden pertsonen arreta

Gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak gizartean parte hartzea zailtzen dieten egoerak bizi dituzte. Diskriminazioarengatik, pobreziarengatik eta beste arrazoi askorengatik gertatu ahal da. Pertsonak gizarte-bazterketako egoeran ez egoteko prestazio **bermatu** hauek daude:

- Akreditazio-zerbitzua, **gizarteratzeko eta laneratzeko enpresetan** sartzeko. Nafarroan, gaztelaniaz EIS esaten diete enpresa horiei.
- Gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko zerbitzua. Gizarteratze eta Laneratze Taldeek ematen dute zerbitzu hau. Gaztelaniaz, EISOL esaten diete talde horiei. Talde horiek sostengua ematen dute, pertsonak enplegu normalizatuetan lan egiteko. Enplegu normalizatua da edozein pertsonak izaten duena, laguntzarik eta berariazko egokitzapenik ez duena.
- Etxebizitzaren arloko gizarteratze-zerbitzua. Etxebizitzaren Arloko Gizarteratze Taldeek ematen dute zerbitzu hau. EISOVI (EGT, euskaraz) esaten diete talde horiei. Talde horiek sostengua ematen diete non bizi edukitzeko arazoak dituzten pertsonen edo etxebizitzari eusteko zailtasunak dituztenei.

Gizarteratzeko eta laneratzeko

enpresak:

enpresa hauetan enplegua egokituta dago, lan-trebetasunak galdu dituzten pertsonak haiek berreskuratu ahal izateko eta laguntzarik gabeko enplegu bat eskuratzeko.

- **Komunitatean kulturarteko bitartekotza** egitea.

Laguntza, kulturen arteko desberdintasunak ulertzeko eta ados jartzeko, bizikidetza errespetatuta.

- Familia-egoera baloratzea, egoitza batean plaza bat lortzeko. Adibidez, pertsona bat bakarrik dagoelako edo arazo larriak dituelako familiarekin.

- Egoitzako arreta-zerbitzua.

- Etxegabeentzako harrera-zerbitzua, gaueko ostatatzea emateko non bizi ez duten pertsoneri.

- Errenta bermatua: laguntza ekonomikoa, oinarrizko premiak, adibidez, janaria edo arropa, aseta ez dituzten pertsonentzat.

- Aparteko laguntzak, oinarrizko premiak ase ezin dituztenentzat eta aparteko gastuak dauzkatentzat. Adibidez, etxea konpondu behar izatea.

Komunitateko bitartekotza:
pertsonek komunitate batean dagoen gatazka bat konpontzeko laguntza. Adibidez, auzo edo herri batean.

Gizarte-bazterketa egoeran
edo horretarako arriskuan dauden pertsonentzako
bermatu gabeko prestazio hauek daude:

- **Enplegu sozial babestua.**

**Enplegu sozial
babeztua:**

programa bat, non laguntza ekonomikoa ematen zaien gizarte-bazterketako egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonak kontratatzen dituzten entitateei.

- Zentro okupazionala.
- Enpresetan laneratzeko laguntza.
- Norbere kontura lan egiteko laguntza.
Beren kontura lan egiten duten pertsonen autonomo esaten zaie.
- Etxebizitza bat erosteko edo alokatzeko laguntzak.
- **Toki-entitateetarako** dirulaguntzak,
programa okupazionalak egiteko.
- **Irabazi-asmorik gabeko entitateetarako** dirulaguntzak,
gizarte-bazterketako egoeran
edo horretarako arriskuan dauden pertsonentzako
jardueretan lan egiten badute.

Toki-entitateak:

probintziak eta udalerrak kudeatzen dituzten administrazio publikoak, eta herritarrengandik hurbilago egoten direnak.

**Irabazi-asmorik
gabeko entitateak:**

onura sozial baten alde jarduerak egiteko elkartzen diren pertsonak, baina dirua irabazi eta bazkideen artean banatzeko helburua eduki gabe.



Adingabeen arretarako arloa

Familia parke batean



Adingabeen arretaren arloa

Nafarroako haurrek eta nerabeek eta haien familiek prestazio **bermatu** hauek dituzte, denak libreki eta berdin hazi ahal izateko:

- Familia-orientazioko zerbitzua, gatazkarik ez edukitzen laguntzeko eta familia-komunikazioa hobetzeko.
- Familia-bitartekotzarako zerbitzua, gatazka konpontzen laguntzeko.
- Familia elkartzeko guneen zerbitzua. Elkartzeko guneak toki **neutralak** dira, bananduta dauden senitartekoak elkartzeko. Adibidez, amarekin bizi den mutiko bat aitarekin elkartu ahal da horrelako gune batean.
- Babesgabetasun-egoerak baloratzea. Familia bat arrisku-egoeran dagoenean, adingabea zaintzeko zailtasunak dituelako. Edo gurasoek edo tutoreek ez dituztenean betetzen adingabeak babesteko betebeharrak.
- Haur eta nerabeentzako arreta-zerbitzua. Haur eta nerabeak artatzeko taldeek ematen dute zerbitzu hau. Babestuta ez dauden eta beren familiarekin bizi diren adingabeei ematen diete laguntza. Nafarroan, EAIA (HNAT, euskaraz) esaten diete talde horiei.

Neutrala:

gatazka batean, aldeetako bakar bat ere babesten ez duena.

- Familian esku hartzeko zerbitzua, babesgabetasun-arriskuan dauden adingabeak dauzkaten familiei laguntzeko.
- Nerabeen heziketarako zerbitzua, harremanak izateko zailtasun larriak dituzten familiei laguntzeko.
- Arrisku-egoeran dauden adingabeentzako eguneko zentroaren zerbitzua.
- Egoitzan oinarrizko harrera egiteko zerbitzua, familiarengandik bereizi behar diren adingabeentzat.
- Ama nerabeei edo haurdun dauden gazteei laguntzeko zerbitzua.
- Familian harrera egiteko zerbitzua, familiarengandik bereizita dauden adingabeentzat eta senitartekoak izan daitezkeen edo ahaidetasunik ez duten beste pertsona batzuekin bizi direnentzat.
- Noizean behingo harrera egiteko zerbitzua, harreran dauden adingabeentzat eta harrera-familiarengandik aldi baterako banandu behar dutenentzat.
- Egoitza-harrera espezializatua, berriazko arreta behar duten egoera bereziak bizi dituzten pertsonentzat.
- Familia-harrera eta adopzioa laguntzeko zerbitzua.
- Neurri judizialak betetzeko zerbitzua, delituren bat egin duten adingabeentzat.

Emantzipazioa:
pertsona bat bere
kontura bizi denean.

Babes-neurriak:
arrisku-egoera
batean daudelako,
adingabeak babesik
gabe daudenean
hartzen diren neurriak.

- **Emantzipazio** prozesuan dauden gazteei laguntza emateko zerbitzua, **babes-neurriak** amaitu direlako eta ez dutelako beren familiarekin itzultzeko aukerarik.
- Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria artatzeko zerbitzua. Seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria seme-alabek gurasoei egiten dietena da.
- Laguntza ekonomikoak, hauetarako:
 - Neska-mutikoak hartzen dituzten familientzat.
 - Adingabeak beren familiarekin egoteko.

Adingabeentzako **bermatu gabeko** prestazioak hauek dira:

- Laguntza ekonomikoak, aparteko gastuetarako.
- Emantzipazio prozesuan dauden gazteei laguntzeko zerbitzua, babesgabetasun-arriskuko egoeretan egon badira.

Adingabeen eskubideei buruz gehiago jakiteko, lege honen irakurketa errazeko bertsioa irakurtzea gomendatzen dizugu: [Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legea.](#)



Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko arloa

Emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzeko
Nafarroan erabiltzen den sinboloa



Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko arloa

Emakume bat indarkeriaren biktima denean, egoera horrek ez dio bakarrik berari eragiten.

Baita seme-alabei

edo bere mende dauden pertsoneri ere.

Indarkeriaren biktima diren emakumeen beharrei arreta emateko prestazio guztiak **bermatuta** daude eta hauek dira:

- Larrialdi-zentroaren zerbitzua, emakume bati eraso diotenean eta ezin denean gelditu bere etxean.
- Harrera-etxeko zerbitzua, emakumeek etxebizitzaz aldatu behar dutenean.
- Egoitza-pisuen zerbitzua, beren bizitza eta autonomia berreskuratzeko prozesuan dauden emakumeentzat.
- **Pertsona-salerosketaren** biktima izan diren emakumeentzako harrera-zerbitzua.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko zerbitzu espezializatua. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeek ematen diete laguntza indarkeria jasan duten edo horretarako arriskuan dauden emakumeei. Nafarroan, EAIV (BOAT, euskaraz) esaten zaie talde horiei.

Pertsona-salerosketa:

pertsonak bahitzea, garraiatzea edo legez kanpo etxean edukitzea, lanean aritzera, sexuan aritzera edo esklabotasuneko beste edozein modutara behartzeko helburuarekin, pertsona horien borondatearen eta ongizatearen aurka.

- Laguntza ekonomikoak:
 - Larrialdi sozialeko laguntzak, arrisku pertsonal larriko egoerei berehalako erantzuna emateko.
 - Pertsonak ez badu baliabide ekonomiko nahikorik eta zailtasunak baditu lana lortzeko.

Intereseko helbideak

Jarraian, webgune batzuk ageri dira,
kontsulta egiteko eta

Gizarte Zerbitzuei buruzko informazio gehiago eskatzeko:

- **Gizarte-eskubideak:**

<https://www.navarra.es/eu/eskubide-sozialak>

Telefono-arreta: 848 426 900.

Aurrez aurreko arreta eskatzeko telefonoa: 848 425 046.

Helbide elektronikoa: info.derechossociales@navarra.es

- **Balorazio Zentroa:**

- Mendekotasunaren balorazioa:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Mendekotasun-egoeraren-balorazioa>

- Desgaitasunaren balorazioa:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Desgaitasunaren-balorazioa>

- **Bizitza Independenterako Bulegoa:**

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Programa-de-apoyo-a-la-vida-independiente-PAVI>

- **Autonomia eta irisgarritasuna laguntzeko produktuen zentroa:**

<https://www.navarra.es/eu/-/zentroa/autonomiarako-eta-irisgarritasunerako-laguntza-produktuen-zentroa>

- **EISOL – Gizarteratze- eta laneratze-taldeak:**
<https://www.navarra.es/eu/>
- **EISOVI (EGT, euskaraz) – Etxebizitzaren arloko gizarteratze-zerbitzua:**
<https://www.navarra.es/eu/>
- **EAIA (HNAT, euskaraz) – Haur eta nerabeak artatzeko taldea:**
<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/Equipo-de-atencion-a-la-infancia-y-adolescencia-EAIA>
- **EAIV (BOAT, euskaraz) – Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei osoko arreta emateko taldeak:**
<https://www.navarra.es/eu/>

